



Etzi hasiko dira kultur ekitaldiak Orexan

MUSIKA ▶ Ruper Ordorikaren kontzertuak emango dio hasiera Kultur Hamabostaldiari

EGITARAUA ▶ Antzerkia, hitzaldiak, ibilaldia eta afaria izango dira hiru astetan zehar ▶ 6

LEITZA ▶

Sentimenen loraketa Pako Zufiaurren irudien bidez

Argazki erakusketa jarri du ikusgai Torrea tabernan; izadiaren ñabardurak jaso ditu ▶ 7



18 etxe berri egingo dira Toriles etxean

TOLOSA ▶ Erretengibel sozietatearen esku uzteko prozedura hasi du Udalak; lehiaketa publiko bidez esleituko dira lanak ▶ 2

BAR TXAPELDUN

Taberna berria Villabonan **IREKI BERRIA** zatoz ezagutzera!
Berria, 23 behea L-2 • Villabona

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Leitza, z/g • TOLOSA
Tel./faxa: 943 67 03 38

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZArekin elkarlanean

Gure harpidedunen artean
BALLANCER presoterapia berrirako
3 saio zozketatuko ditugu

Egin zaitetz harpidedun!

ZOZKETA ▶

Tolosagasa-ren zozketan saridunak

Tolosagasa lehiaketa bat egin berri du herritarren artean. Abesbatzei buruzko galdera bat zuzen erantzun dutenen artean, amaiera ekitaldirako sarrerak zozketatu ditu. Hauexek dira bina sarrerara irabazi dituztenak: Rafaela Plazaola, Carlos Muñoz, Claudi Fiz, Juana Goenaga, Alberto Uson, Teodoro Jaular, Alfonso Mendia, Emilio Luengo, Arantxa Zugasti eta Ignacia Sagarna.

HEZKUNTZA ▶

Graduatu titulua lortzeko proba libreak HHI-n

Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko aukera eskaintzen du Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorrak (HHI). Abenduaren 14an izango da azterketa, eta izen-ematea astelehenean zabalduko dute. 18 urte izatea, irakaskuntza ofizialean matrikulaturik ez egotea eta EAEn bitzitza dira bete beharreko baldintzak. Informazio gehiago eta izen-ematea HHIn (Igaralde 23. 943 67 26 60).

IRTEERA ▶

Zubietara irteera antolatuta du Irazki elkarteak

Irazki elkarte multikulturalak Zubietara (Nafarroa) irteera antolatuta du iganderako. 10:00etan izango da irteera, Santa Klaratik. Zubietako mendiak bisitatuko dituzte, taloak egiten ikasiko dute, eta txikienek asto gainean ibiltzeko aukera izango dute. 607 855 064 (Garikoitz) eta 678 638 394 (Rita) zenbakietan eta Berazubi zelaiko tabernan eman daiteke izena.

IKASTAROA ▶

Osasun arloko ikastaroa langabetuentzat

Inmaculada ikastetxeak *Cuidados clínicos y asistenciales* ikastaroa antolatuta du. Foru Aldundiak finantziatu ditu saioak; eta, beraz, doakoa da. Langabezia daudenei eta osasun arloan lan egiteko asmoa dutenei dago zuzenduta ikastaroa; arlo teorikoa lantzean gain, praktikak egiteko aukera ere eskaintzen du. Informazio gehiago eta izen-ematea 943 67 36 29 telefono zenbakian.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaledea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldeia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Quetglas: Euskal Herria, 46 (Ibarr). 943 67 32 74
Erbiti: Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaledea. 687 41 00 22
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldeia. 687 41 00 32.
ibarraldeia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldeia. 687 41 01 18.
leitzaldeia@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Tolosa. Urriaren 9an argazki kamara galdu genuen Igarondo kalean (bialean). Inork argibiderik badu, deitu 650 69 24 57 telefonora.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Tolosaldeko taberna batean, lau orduz lan egiteko. 943 69 43 13 telefonora deitu, 14:00etatik 15:00etara.

HIRIGINTZA ▶

18 etxebizitza egin nahi ditu Udalak Toriles eraikinean

Toriles Erretengibel sozietatearen esku uzteko prozedura hasi du Udalak; orduan lehiaketa publiko bidez esleituko dira lanak; 18 hilabete iraungo dute

LEIRE MONTES

Lanak hasteko hilabete batzuk pasatuko dira oraindik, baina asmoa eta proiektua argi dago dagoeneko. Toriles eraikinean, Euskal Herria plazan, hemezortzi etxebizitza egitea aurreikusuten du Udalak. Eta hori gauzatu dadin prozedura administratiboa martxan du.

Oraingoz, Toriles izeneko eraikina Udalarena da, baina Erretengibelen esku, Tolosako Alde Zaharra Birgaitzeko Hirigintza Sozietatea, uztea da asmoa. Hala azaldu dio HITZARI Anjel Uranga Erretengibeleko buruak: «Udala beharrezko prozedura administratiboa martxan jarri du. Doako lagapena da, hain zuzen ere, prozedura hori. Horrela, Erretengibelen esku eta izenean jarriko du Udalak Toriles».

Eraikina Erretengibelen esku dagoenean hasiko da bigarren fasea; hau da, lehiaketa publikoa egingo da obrak esleitzeko. Enpresa izendatutakoan ekingo zaie, beraz, lanei.

Erretengibeleko ordezkariak adierazitakoaren arabera, hemezortzi hilabete iraungo dute Toriles eraikineko lanek.

Hemezortzi etxebizitza egitea aurreikusuten dute, baina ez dira guztiak berdinak izango: batzuek hiru logela izango dituzte, beste batzuk bikoak izango dira eta beste bi logela bakarrekoak.

Inguruko bizilagunak «kon-



Hiru logelako, biko eta logela bakarreko etxebizitzak egin nahi dituzte Torilesen, Euskal Herria plazan. L.M.

tu» izango dituztela azpimarratu dute bai Erretengibelek baita Udalak ere: «Hasiera batean, etxebizitza hauek RC2 ezkerrekoa eremuko —besteak beste, Oiarbide hotela eta Laborde-Labaien enpresaren eraikina zena hartzen duen guinea— bizilagunei eskainiko zaie. Izan ere, eremu hori birgaitzea ere bada proiektuaren asmoa».

TORILES-EKO PROIEKTUA ▶

Faseak.

▶ Toriles Udalarena da oraingoz. Doako lagapenaren bitartez, Erretengibelen esku eta izenean jarriko du Udalak eraikina. Gaur egun prozedura administratiboa martxan da.

▶ Toriles Erretengibelen esku

dagoenean, lehiaketa publiko bat egingo da obrak esleitzeko.

▶ Enpresa izendatuta dagoenean ekingo zaie lanei. **18 etxebizitza.**

▶ Hiru logelakoak.

▶ Bi logelakoak.

▶ Logela bakarrekoak: 2.

Lanen iraupena. 18 hilabete.

ZINE-KLUBA ▶

'Bowling for Columbine'
filma eskainiko
dute Leidorren

21:30etik aurrera
izango da ikusgai
Michael Moore
zuzendariaren lana



Filmaren kartela. HITZA

I. ETXEBESTE

Amerikako Estatu Batuetako (AEB) indarkeriaren eta beldurraren patologiaz ikuspuntu eztabaidatu eta zurruna eskaintzen duen dokumentala da Michael Moore zuzendariaren *Bowling for Columbine* (AEB, 2002). Munduan su armarekin eragin-dako hilketak gehien dituen lurraldea dira AEBk. Hilketen kopuru hori botoemaileana eta lurraldean dauden telebista kopuruena baino handiagoa da.

«Armek erotu egiten gaituzten nazioa gara, edo, besterik gabe, erotuta gaude? Charlton Hestonek eta Erriplearen Nazio Erakundeak dute errua? Edo konpontzeke dauden arraza arazoek eragiten dituzte hainbeste heriotza? Eskuinekoek diote Hollywood-eko arduradunak, rock and roll-a eta Internet-a direla errudun. Baina, ez al da izango amerikarrak garaile, besterik gabe, histori-koki biolentziari emanak direnak?». Hausnarketa horiek egiten ditu Michael Moorek bere filmean; Leidor zinema aretoan eskainiko dute bihar, 21:30etik aurrera.

1999an Columbine High School-en izandako tiroketa tamalgarria da bi erduko dokumentalaren abiapuntua. Hainbat alditan saritu dute: 2002an Cannes-eko Zinema Jaialdian 55. urteurreneko saria lortu zuen, eta urte berean Donostiako Zinemaldian ikus-entzuleen saria jaso zuen. Iaz Oscar sarietarako eta Independent Spirit Award-erako izendatu zuten, dokumental onenagatik.

UDALA ▶

Etxebizitza hutsei irtenbidea ematea adostu du Udalak

Visesa enpresarekin lan hitzarmena sinatu du; Erretengibel ere horretan ariko da

IRATXE ETXEBESTE

Herrian hutsik dauden etxebizitzetzi irtenbidea ematea adostu zuten Tolosako Udaleko zinegotzietz herenegun iluntzean egin zuten udalbatzarrean. Bizigune programaren baitan lan egiten duen Visesa enpresarekin lankidetzatza protokoloa egitea onartu dute, ondorioz, udal ordezkariak ahozatez. Hortaz, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA enpresak kudeatuko ditu aurrerantzean herrian dauden etxebizitza hutsak, horien mugikortasuna erraztuz, Tolosan etxebizitza baten beharrean dauden herritarren arazoak konpondu ahal direla uste dutelako.

Tolosan «etxebizitza asko daude hutsik» udal ordezkariaren hitzetan, eta egoera onean egon arren, beste askotan ere ez da inor bizi. «Bestalde, herritar askok ezin du etxebizitza duin eta egoki batez gozatzeko duen eskubidea bermatu». Horregatik, Tolosako udal ordezkariak erabaki dute gai hori Visesa-ren eskutan uztea, eta,

gainera, Tolosako Alde Zaharra hirigintza arloan birgaitzeaz arduratzen den Erretengibel sozietatearen bitarteko gutziak, bai eta lantaldea ere, enpresa horren zerbitzura jarzea, etxebizitza hutsek sortzen duten arazoa, eta, era berean, etxebizitza baten beharra duten herritarren arazoak behar bezala konpontzeko.

Horren ildotik, Bizigune programaren babesean Tolosako Alde Zaharra birgaitzeko egiten diren lanentzat egon litezkeen diru laguntzak aztertzea eskatu dio Udalak Erretengibel udal erakundeari, eta erakuntza, obra eta instalakuntzen zerga %2ra jaitsiko du, halaber, Bizigune programaren babesean Tolosako udalerriaren etxebizitzak birgaitzeko egiten diren lanetarako, betiere Alde Zaharreko PERH-ren mugetatik kanpo egiten direnean.

Neurri horiekin gutziekin herrian dagoen etxebizitza arazoari «irtenbide egokia» emango zaioa irizten diote udal ordezkariak, eta Erretengibelen bidez, gaiari jarraipe-



Etxebizitza asko dira hutsik herrian; irtenbidea emango zaie. J. SAIZAR

na emateko moduan izango direlakoan daude.

Bestalde, EAJko, EAko, EBko, Alderdi Sozialistako eta Alderdi Popularreko zinegotzien eta alkatearen botoekin, 2005erako ordenantza fiskalak aldatzea erabaki zuen osoko bilkura herenegun. Hala, datorren urteko urtarrilaren 1etik aurrera ondasun higiezin, jardueira ekonomikoan, trakzio mekanikoko ibilgailuen, eraikuntza, instalazio eta obren eta hirilu-

rren balio gehikuntzaren gaineko zergak, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik eta herri jabari publikoaren erabilera pribatiboa-ri eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasak eta zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak aldatu egingo dira, eta berriak jarriko dituzte udal ordezkariak indarrean. Banan-banan zehaztuko dizkizuegu aurrerago.

iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

- Alegia.** Etxebizitza berriak 2 eta 3 logelakoak. Deitu telefono zenbaki honetara: 669 87 19 09. Mandio.
- Andoain.** 90 m²-ko etxebizitza, 3 logela, 2 bainugela, igogailuarekin. Pisu altua. Mandio: 669 87 19 09.
- Berrobi.** Etxebizitzak, 75 m², bi logela, baratzarekin 23.800.000 pta. Mandio: 669 87 19 09.
- Cintruenigo (Nafarroa).** Hiru logelako etxebizitza salgai; bi solairuko, altzariz gutziz hornitua, bokoa, erretegia, sukaldea eta bainugela dauzka. Kanpokaldera begira. 18.000.000 pezeta. Mandio: 669 87 19 09.
- Corella.** Etxe abiki rustiko berriak, konstruktorek zuzenean kudeaturikoak. Portxearekin, 2 eta 3 gelakoak, bainua eta sukalez hornitua. 800, 1.000 eta 1.200 m²-ko terrenoarekin. Piszina eta gutzi. Eta gainera, batzuk bimeneta dotorea. 13.500.000 pezeta. Mandio 669 87 19 09.
- Hendaia.** Etxebizitza abikiak lorategia eta

- gutzi. 44.000.000 pezeta. Mandio: 669 87 19 09.
- Ibarra.** Julian Gaiarre kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Polita. 31.500.000 pta. Mandio 669 87 19 09.
- Ibarra.** Etxebizitza berria, Zaldunen. Bi logelako etxebizitza salgai; altzariez hornitutako sukaldea, kanpokaldera begira, trastelekuarekin eta igogailuarekin. Mandio: 669 87 19 09.
- Ibarra.** Euskal Herria kalean, 3 logelatako etxebizitza, baratzarekin. Mandio: 669 87 19 09.
- Ibarra.** Argindegi auzoan, 3 logelako etxebizitza, berogailuarekin eta altzariz gutziz hornitua. 27.500.000 pezeta. Mandio: 669 87 19 09.
- Jaka.** 110m²-ko etxebizitza, 4 logela, trasteleku eta garajearekin. 180.000 euro. Mandio: 669 87 19 09.
- Legorreta.** Etxebizitza salgai, 3 logela, egongela, sukaldea eta trastelekuarekin. Mandio: 669 87 19 09.
- Ordizia.** Urdaneta kalean 67 m²-ko etxebizitza, 2 logela, egongela handia, bainugela eta igogailuarekin. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Santa Klaran 111 m²-ko etxebizitza salgai: 4 logela, egongela handia 25 m²koa eta igogailuarekin. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Araba etorbidean 97 m²-ko

- etxebizitza salgai; bizitzera sartzeko, balkoi handia du eta baita garaje marra ere. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Korreo kalean 70 m²-ko duplexa salgai. 15 m²-ko terrazarekin, teilatu berriua, berogailuarekin. 26.000.000 pezeta. Informa zaitzeta doan. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Hiru solairuko baserria salgai, 500 m²-koa bakoitza, nekazaritzarako 10.000 m²-ko lursailak ditu. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Etxebizitza berritzeko, 19.000.000 pezeta. Informa zaitzeta doan. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Korreo kalean, bi gelako etxebizitza, polita, sartzeko prest. 30.000.000 pezeta. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Korreo kalean, erabat eraerarritutako apartamentua, bizitzera sartzeko 28.000.000 pta. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Amaroz auzunean, etxebizitza salgai 80 m²rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000. Mandio: 669 87 19 09.
- Txarama.** 100 m²-ko etxebizitza salgai; hiru logela eta altzariz hornitutako sukaldea. Bizitzera sartzeko prest. Mandio:

- 669 87 19 09.
- Villabona.** Etxebizitza berria 80 m²-koa, garajea eta trastelekuarekin. Informa zaitzeta dohainik. Mandio: 669 87 19 09.
- LOKALAK**
- Errenteria.** Lokalak, bizitzeko, baimen gutzietekin, sukaldea, logelak eta komonarekin. Informa zaitzeta doan. Mandio: 669 87 19 09.
- Villabona.** Lokala, 35 m²-koa, sukalez hornitua. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m²-ko lokala salgai. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** 428 m²-ko pabilioi berria salgai, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. Informa zaitzeta doan. Mandio: 669 87 19 09.
- Tolosa.** Lokalak salgai Laskorain kalean, Errementari kalean, Rondilla kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean. Mandio: 669 87 19 09.
- LURSAILAK**
- Lursaila.** 10.000 m²-ko lursaila salgai nekazaritzarako. Informa zaitzeta. Mandio: 669 87 19 09.
- Lursailak.** Lursailak etxebizitzak eraikitzeko, lizentziarekin, 32.500 m²-koak, honako tokietan: Errioxa, Lesaka, Legazpi eta Azkoltia. Mandio: 669 87 19 09.

ANOETA-IRURA ▶ KIROLA



Maiatzean Anoetan egindako xakearen inguruko ekitaldia. HITZA

Xake Txokoa gaztetxoentzat urte hasieratik

Ikastaroa antolatu dute egitasmoa hasi aurretik azaroan eta abenduan

IMANOL GARCIA

Bi udalerrietan xakea suspertu nahian, Anoeta eta Irurako udalek Xakearen Txokoa sortu nahi dute. Maiatzean gaztetxoei zuzenduta bi jardunaldi egin zituzten xakearen inguruan eta partaidetza handia izan zuten. Arrakasta hori ikusirik, bi udaletatik jarraipena eman zaie eta horregatik nahi dute egitasmo hau abiarazi. Xakearen Txokoa urtarrietatik aurrera martxan jarri nahi dute, larunbat arratsaldeetan. Oraindik ez da zehaztu non egingo den.

Egitasmoarekin abiatu aurretik, ikastaro bat egitearen

beharra ikusi dute bi udalek. Horrela, hamar orduko ikastaroa antolatu dute Lehen Hezkuntzako lehen mailatik aurrerakoentzat. Bost larunbatetan burutuko da: azaroaren 6an, 13an eta 20an eta abenduaren 11n eta 18an. Bi ordutegi izango dira aukeran: 15:30etik 17:30era edo 16:30etik 18:30era. Irakaslea Ramon Exeberria izango da, Tolosako Xake Elkartearen lehendakaria. Ikastaroaren prezioa sei eurokoa da. Izen-emate epea irerria 28a izango da. Irura eta Anoetako udaletxeetan edo ikastolan eman daiteke izena.

ANOETA ▶

Jubilatuek meza egingo dute kide ohi baten omenez

Milagrosa Eguneko bazkarirako izena eman dezakete kideek biltokian

I. GARCIA

Alkartasuna jubilatuen elkarrekin meza egingo du Frantziska Sarasolaren omenez. Elizkizuna igande honetan izango da, hilak 24, eguerdiko 12:30ean Anoetako parrokiari. Frantziska Sarasola Alkartasuneko kide zen, jaiotzez bedaiotarra, baina Anoetan bizi zen. Bentaldean industrialdean auto baten harrapaketak sortutako zauri larriaren ondorioz hil zen.

Bazkarirako izen-ematea

Aurten hamabigarren urteurrena betetzen dutela eta Alkartasunekoek bazkaria egingo dute. Milagrosa Egunean, azaroaren 27an, izango da elkarteko bazkaria. Dagoeneko izena emateko aukera dute elkarteko kide guztiak. Horretarako biltokira gerturatu beharko dira, betiere 18:00etatik aurrera. Bazkariaren kostua 23 eurokoa bada ere, kideek 20 euro ordainduko dute eta gaitzuek Alkartasunaren kargu izango da. Oraindik ez dago zehaztuta zein izango den bazkariaren toki. Biltokian bertan izango da, baina kopuru handi batek izena emanez gero ikastolan egingo da.

Loteria salgai

Alkartasunako loteria salgai dago biltokian. 61.104 da zenbakia.

IRURA-ANOETA ▶ IKASTAROAK



Autodefentsa ikastaroaren lehen saioa Irurako Trinketeen. I. GARCIA

Autodefentsa ikastaroari hasiera eman diote

Irurako Trinketeen egiten dira klaseak; oraindik izena emateko aukera dago

I. GARCIA

Irura eta Anoetako udalek elkarrekin antolatu duten autodefentsa ikastaroari hasiera eman zioten atzo Irurako Trinketeen. Abenduaren erdialdea arte iraungo du hamabi urtetik gorakoentzat den ikastaroa. Azken klasea hilabete horretako 22an izango da. Guztira hogeita bat lagunek eman dute izena —hogeii emakumezko eta gizonezko batek—, baina oraindik interesatua dagoenak badu aukerarik izena emateko. Horretarako Irurako edo Anoetako udaletxeetara zuzendu behar dira. Izenak eman dituz-

tenetik hamar anoetarrek dira, zazpi irurarrak eta lau billabonarrak.

Aurreko astean egindako bileraren ondoren, bi talde egi-tea erabaki da. Lehenengoak asteazkenetan izango du klasea eta ordutegia 17:15etik 19:15era izango da. Bigarren-go taldeak bestearen ondoren aritko da, 19:15etik 21:15era. Ikastaroaren prezioa hogeita hamar eurokoa da. Langabetuek, ikasleek eta 65 urtetik gorakoek hogeii euro ordaindu behar dituzte. Diru kopurua kontu korrontetik udalek zuzenean kobratuko dute.

Gai ugari jorratzeko

Hiru irakasle ariko dira klaseak ematen: Mikel Bombin, Nagore Bombin eta Luis Pacheco. Autodefentsa ikastaroan hainbat gai landuko dira. Alde batetik, gorputzaren ezaguera, bere posibilitateak eta puntu ahulenak ezagutzeko. Bestalde, erlaxazioa, arnasketa eta kontzentrazioa landuko dira. Eraso bati aurre egiteko teknikak ere ikusiko dira. Jorratuko den beste gai bakoitzaren defentsarako gauza arruntak —giltzak, aterkiak...— nola erabili.

Urriak 24 zizurkil gola

vii. Azoka Berezia zizurkil

11:00-14:30 16:00-19:30	12:00
14:00	15:00
16:00	17:00
18:00	19:00

4

OGI-GOXO

OKINDEGIA eta GOZOTEGIA

kale nagusia, 26 • 20150 BILLABONA • Tel. 943 69 32 94

AMEZKETA ▶ POLITIKA

Arauk izango dituzte hizpide gaurko bileran

Ametzak taldeak aurkeztuko dituen alegazioak azalduko ditu bileran

OLAIA ESKITXABEL

Joan den irailaren 22az geroztik Amezketa arau subsidiarioak jendaurrean erakusgai aurkitzen dira; eta horrela egongo dira etzira, larunbatera, bitarte. Alegazioak egiteko epea ere egun horretan amaituko da.

Ametzak taldeak arau berriek finkatu nahi dituzten hainbat irizpiderekin («kezka eta zalantzak» dituztela agertu du; beraien ustez, arau horiek ez dute ingurumena errespetatzen: «Baserritarren aldekoak direla esaten dute, baina gaur egungo baserriaren kaltetarako izango direla dirudi. Espekulazioa sortzeko bidea ematen dute. Udalarentzat mantentze karga berriak sor daitezke arau horien ondorioz, eta Udalak nahiko lan badu lehengo

bide eta ur azpiegiturak mantenuan, karga berriak erantsi gabe», gehitu dute. Era berean, San Martin eta ingurunea «Amezketa paraje ederra izateaz gain, aisialdirako eta gozamenerako lekua» dela azpimarratu nahi izan du Ametzak taldeak, arau berriek zelaiaren eta inguruen geroa behar bezala babesten eta bermatzen ez dutela azaltzearekin batera.

Gauzak horrela, Ametzak taldeak erakusgai dauden arau subsidiarioen inguruan hainbat alegazio aurkezte erabaki du; «alegazio horien berri emateko, horiekin ados egonez gero alegazioak sinatzeko, eta herritarrek elkarren iritzia jakiteko eta arau berriak iradokitzen egiteko» bilera deitu dute gaurko. Gela balioaniztean bilduko dira, 20:30ean.

ORENDAIN ▶ KIROLA

Mitxelenak ez ditu onartu Ormaetxearen baldintzak

Ordu eta erdiko saioa egin ordez, bi ordukoa egitea proposatu zion oiartzundarrak 'Urki'-ri

O. ESKITXABEL

Urriaren 11n Kantabriko tabernan bildu ziren Jesus Mari Ormaetxea Urki eta Bixente Mitxelena segalariak. Aurretik orendainarrak proposatutako desafioari erantzun behar zion egun Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun den Mitxelena.

Urki-k ordu eta erdiko saioa egiteko desafioa luzatu zion aurreko hitzorduan; urriaren 11ko bilkuran, Mitxelenak bi ordukoa egitea proposatu zion. «Mitxelena ohituta dago bi orduko saioan; lehen ere beste bi desafio izan ditu. Nik, berriz, ez dut oraindik bi orduko saiorik izan eta ni laguntzen ibiltzen diren biltzaileak ere ez. Bere proposamena onartuz gero, aban-



J. M. Ormaetxea, Urki. HITZA

taila handia ematen nion. Gauzak horrela, desafioari ezetz esatea erabaki genuen», azaldu du Ormaetxeak.

Oraingoan ados jarri ez badira ere, aurrerago bi orduko desafioarekin animatzea ez du baztertzen Urki. Momentuz, txapelketetan ikusiko dute elkar bi segalariak.

ALEGIA ▶ UDALA

Herriko ur hornidura aztertzearen beharra azaldu du Udalak

Hiru jario garrantzitsu aurkitu dira egin berri den azterketa batetan

O. ESKITXABEL

Aspalditik dituzte Alegian ur hornidurarekin arazoak; urriko Alegiako Orrien zehazten denez, ur horniduran, hau da, deposituetatik etxetara egiten den bidean, ikaragarriko isurketak edo jarioak aurkitu dituzte egin berri den azterketa batetan.

Ateratzen diren 1.100 m³-etatik 330 soilik zenbatzen dira ur-kontagailuetan: «%70a galdu egiten da, beraz», azaldu dute udaletxetik.

Hiru isurketa puntu aurkitu dituzte eta «horiek konpon-tzera ekin beharko da lehenbaitlehen», horrela, «530era jaitsiko bailitzateke ur galera».

Epe motzean, herri osoko ur hornidura sarea aztertzearen beharra azaldu du Udalak, azkenik.

Aurrikusten diren gastuak

2004ko aurrekontuetan Udalak aurrikusten dituen gastuen berri luzatu du Orrien, udal informazioarako argitalpenean.

San Juan kalea altxatzeko eta berritzeko proiektua idazteko 30.000 euro beharko dira; igogailuen azterketa egiteko 6.000 euro, zubitik Tontokaleraino eta handik Bideberrietara bitarteko espaloiak zabaltzeko 16.000 euro, San Juan 6ko pasabidean baldosak kendu eta aglomeratua

jartzeko 2.400 euro, lur azpiko irteerako gaina eta handik estazio aldeko bidea egokitzeko 14.000 euro, lur azpiko irteerako gaina eta handik estazio aldeko bidea egokitzeko 14.000 euro, Kultur Etxeko aldagelak berritzeko 30.000 euro, kale garbiketarako makina erosteko 78.000 euro, udaletxean igogailua jartzeko 30.000 euro eta Musika Eskolarako 6.000 euro.

Landutako proiektuak gauzatzea (San Juan kalea berri-tu, igogailuen arautegia egin...), horretarako finantzi-zioa lortzea eta hainbat proiektu finkatzea (Musika Eskola, Haur Eskola, Kultur-Kirol Etxearen kudeaketa...) dira 2005era begirako erronkak.

m
matraka

matraka.info

sexua

kontaktuak

elkarrizketak

zinema

erreportaiak

musika

teknologia berriak

zozketak

agenda

urriaren 20tik aurrera

asteazkenero BERRIAREkin ostegunero zure unibertsitatean

Gazteon astekari berria



Liburutegi berria zabalik

GAZTELU ▶ Duela gutxi liburutegiaren inaugurazioa izan da Gaztelun. Berreskuratutako materialarekin eta Osingoen eraikina egokitu ondoren martxan jarri da. Astelehenetik larunbatera 17:00etatik 18:30era izango da zabalik. HITZA



Uliko festa egin dute

GAZTELU ▶ Joan den astean Uliko urteroko festa burutu zen. 1985. urtean hasitako ohiturari jarraituz Oresakoek babarrunak eta Gaztelukoek haragia prestatu zuten bazkarirako. Trikitilariak alaitu zituzten Kontzejun bildutako 80 lagunak. HITZA

OREXA ▶ KULTUR HAMABOSTALDIA

Ruper Ordorikarekin hasiko da etzi kultur hamabostaldia

Hiru astetan banatuta hainbat ekitaldi antolatu dituzte adin guztientzat



Pasa den urteko ekitaldietan jende ugari hartu zuen parte. J.SAIZAR

IÑIGO TERRADILLOS

Duela 16 urte hasi ziren Oresan Kultur Astea antolatzen, 1988. urtean Nikolas Ormaetxea *Orixe* jaio zela 100 urte bete zirela eta bere omenez Kultur Astea egitea erabaki zutenetik.

Egin zuten lehendabizikoak erlazio zuzena izan zuen euskal kulturak hainbeste zor dioten orexar idazlearekin. Horrela, bertsopaper eta literatura

lehiaketak egin ziren eta honen inguruko hitzaldiak antolatu, beste ekitaldi batzuen artean. Ondorengoek beste gai batzuk izan dituzte ardatz moduan.

Aurtengoari Erdi Aro kutsua eman nahi izan diote. Antolatu diren hitzaldietan garai hartako euskaldunen tradizioak edo Santiago Bidea nola izaten zen Gipuzkoan aztertuko da, besteak beste. Honetaz gain, Kultur Hamabostaldiari amaiera emateko

teko egingo den afaria ere antzinako erara egin nahi dute, eta dekoratu, mahaiko tresneria eta prestatuko diren jakiekin garaiko bizimodua imitatzeko izango dute helburu.

Hiru astetan banatu dituzte aurten ekitaldiak, eta ez batean

aurrekoetan bezala. Antolatuzaileen arabera, «dena egun gutxitan pilatu ordea hobeto da egun gehiago hartu eta ekitaldiak sakabanatu». Bestalde, aurreko urteetako parte-hartzea ikusita aurten ere errepikatzea espero dute.

EGITARAUA ▶ KULTUR HAMABOSTALDIA

URRIAK 23

22:30. Ruper Ordorika.

URRIAK 26

21:30. *Euskal folklorea: dantzak, errituak, mitologia* hitzaldia (Juan Antonio Urbeltz eta Nabarralde).

URRIAK 29

22:30. *Arrautza delikatuak* antzerkia (Hika).

URRIAK 30

16:30. *Lau anaia umezurtzak* txobongilo saioa (Irrintzi). Ondoren merienda.

URRIAK 31

XVII. Uitz-Orexa ibilaldia. 14:00. Herri bazkaria, Izaro eta Aiorak alaituta.

AZAROAK 2

21:30. *Santiago bidea* Gipuzkoan. (Jabier Aranburu).

AZAROAK 4

21:30. *1000. urteko euskaldunak* hitzaldia. (Erlantz Urtasun eta Nabarralde).

AZAROAK 6

21:00. Afaria antzinako erara. Erromeria Iñaki eta Garirekin.

BELAUNTZA ▶

Jubilatu Eguna egingo da igandean

Urtero bezala, aurten ere Uli Mankomunitateak Belauntzan Jubilatuen Eguna burutuko du urriaren 24an, eta bertan izena emateko azken eguna gaur izango da; horretarako, Uli mankomunitatera (943 68 22 28) edo udaletxera (943 67 43 66) deitu behar da. Eguna 13:00etan egingo den mezarekin hasiko da. hau amaituta toka txapelketa izango da, eta ondoren, bazkaria eta oparien banaketa. Trikitilari eta bertsolariak alaituko dute bazkaria.

BERROBI ▶

Frontenis txapelketarako izen ematea

Berrobiko XIII. Frontenis Txapelketarako izen-ematea zabalik dago. Horretarako, udaletxera, Urkola edaritegira, Iriarte jatetxera eta Aralar Kiroloak-era joan behar da. Banaka 5 euro eta bikoteek 10 euro ordaindu behar dituzte. Izena emateko epea azaroaren 12a izango da.

BELAUNTZA ▶

Zarautzera irteera atzeratu egin dute

Uli Mankomunitateak aste-buru honetarako antolatutako asmoa zuen irteera atzeratu egin da. Datorren urriaren 13 eta 14ko asteburuan egiteko asmoa azaldu dute. Irteera Zarautzera izango da irteera eta haurrak eta gazteak begiraleekin joango dira. Izena emateko deitu 943 68 22 28 zenbakira.

IBARRA ▶

'Euskal Pilota' gaur zine-klubean Gaztetxean

Julio Medem-en *Euskal Pilota* filma izango da gaur ikusgai Ibarako Gaztetxean, ostegunero bezala 21:45ean.



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ KULTURA



Argi eta itzalak. Pagadien barreneko iluntasunarekin eta hondoko lainoaren argitasunarekin jokatuz, itzalezko irudiak lortu ditu, enborren zuzentasun edo okerduren ezaugarriak nabarmenduz. Gero, berez, naturan zuri-beltzezkoak diren irudiekin konposaketak egin ditu. J. ASTIBIA



Landareak. Kasu honetan lore baten lorezilen, estaminean, argazki xehea erakusten du. Argazkigintzaren tekniken ezagutza ere ez da nolanahikoa. J. ASTIBIA



Mosaikoak. Argazkiekin mosaikoak egin ditu. Zehaztasunez zaititu eta berriz ere jatorrizko lekuan parez-pare muntatuz, puzzle osatuaren itxura dute. Koloreen kontrasteak ere badu garrantzia. J. ASTIBIA



Hegaztiak. Oraindik ere gure erreketan arrantzan harrapa daitekeen Martin honen kolore urdin-laranjek harritu egiten du edozein ere. Berari doakion koadroa jarriz, hare deigarriago gelditzen da. Inguruneko aberastasunez jabetzeko modu da. J. ASTIBIA



Paisaiak. Orokorrakoak diren argazkietan, irudiaren berezko ezaugarriak erakustez gain, inguru horren koloreak, edo hauen gabeziak nabarmendu ditu: pago luzeak, koadro luzea; itzal koloreak, *pas-partout* grisa. J. ASTIBIA

Irudiaren bidezko sentimenen loraketa

Pako Zufiurren argazkiak daude ikusgai Torrea tabernan; irudi eta koloreen nahasketaz, estetika oso zaindua dute

JAIONE ASTIBIA

Pako Zufiurren argazkiak daude erakusgai Torrea tabernan, duela aste pareta eta beste batean behinik behin, hurrengo astearte arte gutxienez, horixe egonen direla jakin dugu. Lehen noizbait, argazki erakusketak antolatuta izan dituzte beste tabernaren batean ere, baina aspaldi samarrean ez zen horrelako aukerarik izan

eta horretaz baliatzea interesgarri izan daitekeelakoan gara.

Aipatu txanda haietan, Chiapas, Sahara... moduko herrietako bizimodu eta biztanleen gaia jorratzen bazen, oraingoan naturari buruzko irudiak dira zintzilikatutakoak. Baina ez dira irudi hutsak, argazki hutsak, mendira joan eta edozein moduz ateratakoak, baizik eta izadiak begien bistara jartzen dituen itxura, kolore, itzal,

kontraste, eta berezkoak dituen beste hainbeste ezaugarritan erreparatu eta argazki kamararen baliabideez baliatuz, asko zainduz ateratakoak eta ondoren, zuhur asko egingdako aukeraketaren ondorio da bilduma hau.

Baina ez dira argazki hutsak ere, hain zuzen Zufiurrek, lortutako irudien koloreekin jokatuz, estetika asko zaindu dutelako eta formato desberdine-

tan prestatu ditu bere ideia hauek: koadroak, mosaikoak, konposaketak... Zehaztasun osoz lan eginez eta xehetsunak zainduz «beste sentimendu batzuk sotarazten ari naiz», adierazi digu. Lan hauen presetaketa eta muntaia ere berak egin du, artisautzan ere trebea dela erakutsiz.

Baina, esan digunez, bere helburu nagusienetakoa bertako ingurunea ezagutaraztea omen da: «Jendea gure baso, erreka, mendi, larretan dugunaz konturatuazte eta oharterazte; egurra eta harrapatu edota bildu daitezkeenak baino aberastasun gehiago badela. Baina ez gara horretaz jabetzen».

Bide horretan, erakusketa honetan dituen argazkiak inguruko herri hauetan ateratakoak direla esan digu. Ohartzen hasteko, ez dago gaizki!

GERTUTIK ▶
PAKO ZUFIAUR (EGILEA)

Izadiaren ñabarduren jasotzaile

Ofizioz mendiko zeladore da eta inguru hauetako herrietako mendi eta erreka zokoak ongi aski ezagutzen ditu horregatik. Horrela, lanean mendian aritzearen poderioz eta landare eta aziendez, batez ere hegaztiaz, dakienea erantsiz, bere inguruaren eraketa, aldaketa, xehetasunez jabetu, eta jaso egiten ditu. Eta erakutsi. Iruñeko Meson-en eta Orion ere, erakusketak dauka orain.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Kirol Kultur Etxeaz bilera. 19:30ean udaletxean.

Amezketza. Arau subsidiarioei buruzko bilera deitu du Ametzak taldeak. Gela balioanitzean 20:30ean.

Belantza. Behi Bi taldearen eskutik antzerki musikala izango da 18:00etan Kultur Etxean.

Berrobi. Frontenis txapelketarako izen-ematea udaletxean zabalik da. 19:00etatik 21:00etara.

Ibarra. Faxaren funtzioak ordenagailuan ikastaroa 19:00etatik 21:00etara KZgunean.

Tolosa. Igande honetan Ganuza-Kontrasta (Araba) ibilaldia. Izen-ematea Alpinu Uzturren (943 652589).

Tolosa. 36. Abesbatza Lehiaketarako sarrerak salgai CITen 17:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Kurtso hasierako gurasoen bilera: Batxilergoko 4. mailako ikasleen gurasoek Eskolapioetan 18:30ean.

Tolosa. Larunbatean Bilbon 17:00etan La Naval eta Babcocken alde *Euskal Herriak burujabetza ekonomikoa* manifestaziara joateko autobusak antolatatu ditu LABek. Izena egoitzean edo 943 67 00 26 telefonoan eman daiteke.

Tolosaldea. Azaroaren 7an Telleria abizena dutenen urteko bilera Liernin. Izen-ematea 675 71 03 44an.

Villabona. Aretu futbol torneorako izen-ematea zabalik da Olaederran.

HITZALDIAK

Berastegi. Haurren osasunari buruz. Gaztainondon 17:30ean.

Tolosa. Eako Carlos Garaikoetxea eta Martin Aranburu. Bonberenean, 19:30etan.

Villabona. Pablo Mendia: *Ariketa fisiko orekatuaren onurak*. Biltoki jubilatuen elkartearen. 17:00etan.

ZINE-KLUBA

Ibarra. *Euskal pilota: larru harriaren kontra*. 21:45ean Gaztebelean.

Tolosa. *Bowling for Columbine*. 21:30ean Leidor zineman.

Hiru izar berri errepidean

ANOETA ▶ Harley Davidson markako hiru motor berri aurkeztu berri dituzte Cheyenne taberna-dendan; jende ugari bildu da aurkezpenean



Hauek bezalako harribitxiak ikus ahal izan zituzten asteburuan Cheyennen bildutako motorzaleek. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

ERREDAKZIOA

Motozaleek Anoetako Cheyennen dute erreferentzia. Benta Aldeako pabilioietan aurkitzen den taberna eta denda beraien paradisu da. Asteburuan berriro albistea sortu da Cheyennen: Harley Davidson markak datorren urterako aurkeztu dituen hiru motor berriak ikusgai izan dira bertan.

Eguraldi txarra zela medio, antolatzaileek prestatutako ekitaldi guztiak ezin izan zituz-

ten burutu, baina batzuk bai. Eta, arrazoi berarengatik, jende gutxi espero bazuten ere, «erantzun ona eta giro ederra» izan zutela diote.

Motor marka honen jarraitzaile ugari bildu zen, tragoxka baten aitzakian kuxkuxeatzera joandakoekin batera. Hiru motor izarrak, 2005erako berrikuntzak, Dyna Super Gilde Custom, Softail Deluxe eta Softail Springer Classic izan ziren. Harribitxi gisa begiratzen zituzten Cheyennen bildutakoek.

Hiru izarrak

Bitxikeria modura, Harley Davidson etxeak Softail Springer Classic egiteari aspaldi utzi ziola esan behar da, baina «eskaera handia ikusita» berriro hasi da merkaturatzen, «gaur egungo homologazioetara egoituta».

Dyna Super Glide Customek 1.400 zentimetro kubiko ditu eta bere motako merkeena da, 15.000 euro —Harley handiek 27.000 euro balio dute—, esku-ragarriago jarri dute beraz.

Hiru berrikuntzen artean, Softail Deluxe da garestiena, Heritage motorraren jarraipena zerbait berritua.

Asteburuan Cheyennen bildutakoek motor horiek probatzeko aukera ere izan zuten, nahiz eta eguraldiak ez lagundu. Itxuraz gain, teknika oneko motor onak direla frogatu ahal izan zuten.

Aurrerantzean badakite motorzaleek non duten bere txokoa. Motorrekin eta tabernarekin batera, gustuko musika ere bertan aurkituko dute.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Cristina.
 Zorionak espedizioaren partetik.



URTE ASKOAN

Zorionak Maialen. Gaur 5 urte. Aitabo, amaboa eta bereziki Izadiren partetik muaxak.



URTE ASKOAN

Naroka Urkola (Anoeta). 13 muzu ebekoen partetik zure urtebetetze egunean.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
 Mila esker!